BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

4980

EBAZPENA, 2026ko azaroaren 16koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariarena, Memoria Demokratikoa berreskuratzeko dokumentalak sortzeko 2026rako dirulaguntzen deialdia ebazten duena.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariaren 2026ko irailaren 9ko Ebazpenaren bidez, memoria demokratikoa berreskuratzeko dokumentalak sortzeko dirulaguntzen 2026. urteko deialdia egin zen eta deialdi hori arautzen duten oinarriak onartu ziren (EHAA, 2026ko irailaren 17koa, 178. zk.).

Ebazpen horren 13. artikuluan izendatutako epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak emateko egindako proposamena aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea I. eranskinean ageri diren entitateek atzera egiteko aurkeztutako eskaerak, eranskinean bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Bigarrena.– Baztertzea II. eranskinean ageri diren entitateek aurkeztutako eskaerak, eranskinean bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Laguntzak ematea III. eranskinean zerrendatutako entitateei (zenbatekoak eranskinean bertan adierazten dira). De minimis laguntzak direnez, honako hau bete beharko dute: Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBAO, L 2831. zk., 2023-12-15ekoa).

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Bilbao, 2026ko azaroaren 16a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria,
ALBERTO ALONSO MARTIN.

I. ERANSKINA

ATZERA EGIN DUTEN ESKATZAILEEN ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Atzera egitea
010	La Tentación Producciones, S.A.	«Nun dago euzkadi»	Interesdunak atzera egin du prozeduran.

II. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Baztertzeko arrazoia
002	Ramón Rubial fundazioa	«Las rosas florecieron en Gernika. 90.º aniversario del primer Gobierno Vasco»	Ez du lortu deialdiaren 14.2 artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa.
007	Asociación Pausumedia Elkartea	«Kea»	Ez du betetzen deialdiaren 3.3 artikuluan ezarritakoa; proiektua ez dago muntaketa/ postprodukzioaren azken fasean edo amaituta.
008	Laszlo Hace, S.L.	«Los hijos de Paulette Herzog»	Ez du betetzen deialdiaren 3.3 artikuluan ezarritakoa; proiektua ez dago muntaketa/ postprodukzioaren azken fasean edo amaituta.

III. ERANSKINA

ENTITATE ESLEIPENDUNAK

Kodea	Izena	Proiektua	Dirulaguntza (euro)
001	Ametza films, S.L.	«Irailak»	17.804,88
003	Fundación Juan de los Toyos	«Nicolás Redondo Urbieta. La forja de un líder»	4.451,22
004	Esrec produkzioak, S.L.	«Testigos invisibles»	11.929,27
005	Sonora estudios, S.L.	«Isaac Puente, salud y anarquía»	11.751,22
006	Euskadi movie, S.L.	«Saibigain 1937. El monte de la sangre»	14.778,05
009	Bide guztiak AIE	«Bide guztiak»	14.778,05
011	Jon Mikel Núñez Melina	«Geolocalización visual, documentación y difusión de la memoria histórica y la población civil durante la Guerra Civil en Euskadi»	4.507,31
		Guztira	80.000,00